

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**158. zenbakia****Data 2004-08-18****15812 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA**

DONOSTIAKO UDALA

Donostiako Hileta Zerbitzuak, S.A. sozietatearen memoria, estatutuak eta prezio publikoak behin betiko onestea.**DONOSTIAKO UDALA****Lege Zerbitzua - Finantza Zuzendaritza***Iragarkia*

Donostiako Udalak, 7/1985 Legeko 86. artikuluan eta 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 97. artikuluan oinarriturik, 2004.eko abuztuaren 11n erabaki du udal hileta, tanatorio, errauskailu eta hileta zerbitzuen oroitidazkia eta prezio proiektuak barne hartzen dituen Proiektua onartzea, baita ekonomi jarduera hori udal merkataritza baltzu bidezko zuzeneko gestioz egitea, estatutuak onartzea, Donostiako Hileta Zerbitzuak akziokako baltzua eratzea eta baltzu eraketari eutsitakotzat eta kapitala estatutuen arabera jarritakoak hartzea ere.

**«DONOSTIA HILETA ZERBITZUAK AB»
AKZIOKAKO BALTZUAREN ESTATUTUAK****I. TITULUA****IZENA, HELBURUA ETA EGOITZA***1. artikulua. Baltzuaren izena.*

Donostia Hileta Zerbitzuak AB akziokako baltzua arautuko da honako estatutu hauek ez ezik, Toki Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta abenduaren 22ko 1.564/1989 Legegintzako Errege Dekretua -Akziokako Baltzuen Legearen Testu berridatzia jasotzen baitu- eta Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudia ere erabilia, baita arau hau garatzerakoan emandako beste ezein xedapen eta aplikatu daitezkeen beste guztiak ere.

2. artikulua. Baltzuaren helburua.

Hona hemen baltzuaren helburua:

1. Hileta zerbitzuak gestionatu, garatu eta ustiatzea behar beste baimen erabilia, honako hauek barne daudela:

a) Tanatorioak gestionatu eta ustiatzea.

b) Gorpuak osasun arauen arabera egokitzea, tanatopraxia eta baltsamatzea barne.

c) Hilak, gorpuzki zein errautsetarako kutxatxoak eta garraiorako enbalaje kutxak saltzea.

d) Hileta autoak eta koroetarako auto osagarriak eskaintzea zerbitzu moduan.

e)Beila salen zerbitzua ematea eta jendaurreko hileta antolatzea oratorio egokietan.

f)Gorpuak eta gorpuzkiak garraiatzea, are atzerrira ere.

g)Izapidetzea hileta lizentzia eta gorpua udalerritik ateratzeko lizentzia eskuratzeko administrazio eginbideak.

h)Hildakoak beila saletan hartzea.

i)Beila eraikin eta salak eraikitzea, baita osagarriak ere: Oratorioak, kafetegiak, tanatopraxia salak, hozte ganberak, garajeak eta aparkalekuak.

j)Baltzuak eraikitako eraikin eta instalazio guztiak gestionatzea eta ustiatzea.

k)Hileta zerbitzuei atxikitako bestelako jarduerak, baltzuak lege horrelakoak betetzeko baimenik izanez gero.

2.Hileta zerbitzuak eta gorpu errauskailuarenak eskaintzea, honako hauek barne daudela:

a)Udal hilerriak gestionatzea eta ustiatzea.

b)Gorpu errauskailuak gestionatzea eta ustiatzea.

c)Hilerri eta gorpu errauskailuak zaintzea eta mantentzea.

d)Hildakoak hilerrietan hartzea.

e)Gorpu eta gorpuzkiak lurperatzea, lurretik ateratzea eta erretzea.

f)Hilobi eta nitxoak paratzea.

g)Hilobi eta nitxoen gaineko hilobiratze eskubideen emakida aitortzea eta eskualdatzea.

Horrelako jarduera beteko du horrelakoan jarduteko ahalmentzeko Udalak hartutako erabakien bitartez, erabaki horietan xedatutako baldintzen arabera.

Bigarren atalean aipaturiko hileta eta errauste zerbitzuak gestionatzea, garatzea eta ustiatzea indarrean egongo dira baltzua udalaren baltzu pribatua den bitartean, 50 urteko iraupena izango dutela baltzua ekonomia mistoko baltzu bihurtzen denetik, bihurtze hori Merkataritza Erregistroan jaso beharko dela Donostiako Udaleko organo eskudunek emandako egiaztagiri bidez eta, beharrezkoa iritziz gero, honako estatutu hauek aldatuta.

50 urteko epe hori amaituta, bestelakorik gabe itzuliko dira Donostiako Udalaren jabetzara baltzuaren ondasun guztiak, aktiboa eta errauskailua eta hilerria zerbitzua emateko erabilitako instalazio guztiak, baita aparkalekua eta aipaturiko tanatorioak ere. Ondasunak itzuliko dira Donostiako Udalak inongo kalterik zertan ordaindurik izango ez duela.

Halaber, egun horretan modu automatikoan aldatuko da baltzuaren helburua, 2. atala eta 1. ataleko a) eta j) azpiatalak indargabeturik geratuko direla.

Aurreko 1. eta 2. ataletan xedaturikoaz gain, Donostiako udalerrian gauzatzen diren ekintzei dagokienez, Donostiako Udalak agintaritza erabiltzeko ahalmenaren jabe iraungo du.

3. *artikulua. Baltzuak noiz arte iraungo eta lanari noiz ekingo.*

1. Baltzuak ez du iraupen mugarik izango.

2. Baltzuak lanei ekingo die eratzeko eskritura ematen den egunean; eskritura Merkataritza Erregistroan jaso beharko dela.

4. artikulua. Helbidea eta sukurtsalak.

1. Elkarteak egoitza Donostiako Hondarribi kaleko 21ean izango du.

2. Baltzuak egoitzaz aldatu nahi izatekotan, Akziodunen Batzar Nagusiaren baimena beharko du, baina hiri berean tokiz aldatuz gero, nahikoa izango da Administrazio Kontseiluak onartzea.

3. Halaber, Administrazio Kontseiluak erabaki dezake sukurtsalak, agentziak edo ordezkariak sortzea, tokiz aldatzea edo kentzea, bai nazioan lurraldean, bai atzerrian, baltzuaren jardunbiderako beharrezkoa edo komenigarria izanez gero.

II. TITULUA

BALTZUAREN KAPITALA ETA AKZIOAK

5. artikulua. Baltzuaren kapitala.

Gizarte baltzuak milioi berrehun eta laurogeita hamabi mila eta ehun euro –1.292.100 €– egiten ditu eta hogeita bat mila eta bostehun eta hogeita hamabost akziotan –21.535– banaturik dago, akzio horietako bakoitzak 60 €-ko balio nominala izanik; akzio guztiak –klase eta serie bereberkoak– izendaturik eta ordaindurik daudela.

6. artikulua. Akzioen ordezkariak.

1. Baltzu kapitala 21.535 akziotan banaturik dago.

2. Akziook nominalak izango dira, taloitegi liburuetan banatuko dira, bakoitzak 60 €-ko balio nominala izango du, eta denak serie berekoak izango dira.

3. Akzioak titulu nominatiboz ordezkaturiko dira, eta tituluok arruntak edo askotarikoak izan daitezke.

4. Akziodunaren eskubidea da gasturik gabe jaso ahal izatea bai titulu arrunta, bai titulu askotarikoa. Titulu askotarikoa jasoz gero, akziodunak eskubidea izango du baltzuari eskatzeko akziodunak aurkezten dituen tituluak baliogabetzeko eta bere jabetzako akzioen adinako titulu arrunt emateko edo titulu askotariko bat baino gehiago emateko, askotariko horiek baliogabetzeko aurkezten dituen akzio kopuruez bestelako kantitateak ordezkatzeko badituzte.

5. Titulu arrunt edo askotariko bakoitzak administratzaile baten edo gehiagoren sinadura eramango du. Sinadura eskuz edo bitarteko mekanikoz egin izan daiteke.

6. Baltzuak akzio nominatiboen erregistro liburu legeztatuta izan beharko du, legeak xedaturiko ondorioak direla eta. Ezein akziodunek azter dezake aipatu liburu hori hala eskatuz gero.

7. artikulua. Akziodunaren eskubideak.

Akzioak bere jabe legitimoari bazkidetza izendatzen dio eta modu saihestezinean ondoko eskubideak ematen dizkio: Baltzuaren etekinak banatzen parte hartzea, akzioak lehentasunez hartzea eta Batzar Nagusietan bozkatzea.

8. artikulua. Akzioak oztoporik gabe eskualdatzeko mugak.

1. Akziodunen batek akzioak inter vivos saldu nahi badizkio akzioak onura lortzeko asmoz bazkide ez den pertsona fisiko edo juridiko bati, idatziz adierazi beharko dio Administrazio organoari, honako hauek adierazita: Akzioen zenbakia, klasea eta seriea, erosle gaiaren izena, helbidea eta nazionalitatea, akzio bakoitzaren prezioa edo ordaina; eskaintzaren kopia erantsi beharko duela, argiro adierazita eskaintza hori sendoa eta loteslea dela akzioak erosi nahi dituen lagunarentzat. Eskualdatze proiektuaren komunikazioak kontratu eskaintza atzeraezinaren ondorioak izango ditu.

2. Komunikazioa jaso eta zortzi eguneko epean Administrazio Organoak presazko postaz horren kopia bana bidaliko die kopia igortzeko egunean akzio nominatiboen Erregistro Liburuan zerrendaturik agertzen diren akziodunei, akzioak lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzeko aukera emateko. Eskaintza liburu horretan adierazitako helbidera bidaliko da.

3. Komunikazioaren kopia bidali eta hamabost eguneko epean, hala nahi duten akziodunek –banaka ala taldeka– eskaintako akzio guztiak lehentasunez erosteko eskubidea erabil dezakete, ezein bitarteko idatziz jakinarazi behar diotela Administrazio Organoari.

4. Akzioak lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzeko akziodunei aitortutako epea amaitu eta biharamunetik zortzi eguneko epean, Administrazio Organoak akzioak banatuko ditu eskubidea garaiz eta behar den moduan erabili duten akziodunen artean.

Eskubidea batzuek erabili izan balute, akzioak banatuko dira akziodun bakoitzak dauzkan akzioen balio nominala batez besteko moduan erabilita.

Lehentasunez erosteko eskubidea taldeka erabili duten akziodunei akzioak banatzerakoan, akziodun horiek beroiek erabakitako arauak erabiliko dira. Horrelakorik ez balego, balio nominalarekiko batez bestekoa erabiliko da arau moduan.

5. Akzioak izendatutakoan, Administrazio Organoak akziodunari adieraziko dizkio akziodun erosleen izen-deiturak eta helbideak, baita ere bakoitzari zenbat akzio izendatu zaizkion. Jakinarazpen berbera bidaliko dio esleipen hartzaile bakoitzari.

6. Akzioen salneurria izango da eskualdatze proiektuan adierazitakoa.

7. Proiektaturiko eskualdatzea salerosketaz edo irabazteko asmoaz bestelako kostu bidezko titulu bitartez gauzatuz gero, lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzen duten gainerako akziodunentzako salneurria izango da bi aldeok elkar hartuta adostutakoa edo, horren orde, saltzeko asmoa baltzuari adierazi zitzaion eguneko benetako balioa. Benetako baliotzat joko da baltzuaren kontu auditoreak edo, baltzuak urtean kontuak zertan aztertutik ez balu, baltzua izen emanda dagoen barrutiko Merkataritza Erregistratzaileak izendaturiko auditoreak adierazitakoa, auditorearen lansaria –baltzuarena berarena ez bada– erdibana ordaindu beharko dutela erosleek eta saltzaileak.

8. Administrazio Organoak akzioak salerosteko komunikazioa bidali eta bi hilabete igaroz gero eskaintzaileak artikuluko bosgarren paragrafoan adierazitako jakinarazpena jaso ez duela, akziodunak ez du inongo mugarik izango akzioak iragarritako proiektuaren arabera saltzeko. Eskualdaketa gauzatu beharko da, gehienez ere, hilabeteko epean.

Eskualdaketa azken epe horretan egin ezean, akziodunak ezingo du eskualdatze proiektu berririk aurkeztu

aurrekoa aurkeztu eta urtebetea igaro arte.

9. Akzioak erosiz gero exekuzio prozedura auziz kanpoko, auzi bideko edo administraziozko bidez zein mortis causa delakoa dela bide, Administrazio Organoak eskua izango du idazketa akzio nominatiboen Erregistro Liburuan ez jasotzeko eta akziodun erosle bat edo gehiago proposatzeko. Erosleak aurkeztuko dira notario bidez akzio nominatiboen Erregistro Liburuan idatziz jasotzeko eskatu eta gehienez ere bi hilabeteko epean. Hori dela eta, idatziz jasoarazteko eskabidea jaso eta zortzi eguneko epean Administrazio Organoak presazko postaz horren kopia bana bidaliko die kopia igortzeko egunean akzio nominatiboen Erregistro Liburuan zerrendaturik agertzen diren akziodunei, akzioak lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzeko aukera emateko.

Akzioak lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzea, akzioak erostea, eta eskatzaileari akzioak idatziz jasoarazi direla jakinaraztea egingo dira artikuluko honetako hirugarren ataletik bosgarren ataleraino xedaturikoen arabera.

Akzioen salneurria izango da nahitaez horiek benetan duten balioa akzio nominatiboen Erregistro Liburuan jasoarazteko eskatutako egunean, eta legeak araututakoaren arabera xedatuko da.

Baltzuak erabakiz gero etekinik banatzea akzio nominatiboen Erregistro Liburuan jasoarazteko eskatzen denetik eta eskatzaileari akziodun eroslearen izenaren berri eman arteko epean, mozkinak eskatzailearentzat izango lirake.

10. Artikulu honetan xedaturikoaren aurka eginiko eskualdaketak ezingo dira baltzuaren aurrean erabili ezein eskubide eskatzeko.

9. artikulua. Bestelako eskualdaketak.

Halaber, administrazio arauak ezartzearen, baltzuko akzio pribatu guztiak edo batzuk ezein tituluren bitartez eskualdatzeko, honako baldintza hauek ez ezik, aplikatzeko modukoak diren beste batzuk ere bete beharko dira:

- a) Donostiako Udalak berariaz eta aurretik eskualdatzeko baimena ematea.
- b) Erosleak gaitasuna izatea toki administrazioarekin kontratatzeko.
- c) Eskualdaketa eskritura publiko bidez gauzatzea.

III. TITULUA

BALTZUAREN ORGANOAK

1. KAPITULUA. AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA

1. ATALA. Baltzuaren organoak eta Batzar Nagusia

10. artikulua. Baltzuaren organoak.

Baltzuaren gobernu eta administrazio organoak izango dira Akziodunen Batzar Nagusia, Administrazio Kontseilua, Batzorde Iraunkorra (horrelakorik egonez gero) edo Kontseilari Ordezkarria, eta zuzendari-gerentea.

11. artikulua. Batzar Nagusiaren ahalmenak.

Batzar nagusiek, legez deituz gero, gehiengoz erabakiko dituzte beren eskumeneko baltzu gaiak. Batzarrek erabakitakoek bazkide guztiak behartzen dituzte, baita konforme ez daudenak eta batzarrera joan gabeak ere, babesturik egongo direla legeak akziodunei emandako eskubide eta ekintzak. Eta hori dena gaiaren gainean akziokako baltzuen Legeak eta honako estatutu hauek xedaturikoa kontuan izanik.

12. artikulua.Administratzaileak ordezkari ezin izatea.

1.Batzar Nagusiak soilik utz dezake bere eskumena administratzaileen eskuan Legeak xedatutakoetan.

2.Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, administratzaileek ahalmena izango dute bestela erredaktatzeko baltzu kapitala aipatzen duen Baltzu Estatutuetao artikulua horrelakoren bat gertatuz gero:

1)Batzar Nagusiak ahalmena eman badie baltzu kapitala halako kantitate bat gehitzeko erabakia noiz gauzatu behar den erabakitzeke.

2)Batzar Nagusiak ahalmena eman badie baltzu kapitala behin edo gehiagotan gehitzea erabakitzeke.

3)Batzar Nagusiak berariaz xedatu izan balu baltzu kapital osoa ez hartzea horretarako epearen barruan.

4)Batzar Nagusiak baltzuaren helburua ordezkatzeko erabakitzea, banatze eskubidea erabiltzen duten akziodunei akzioen balio ordaindutakoan.

3.Batzar Nagusiak ahalmena eman diezaieke administratzaileei gertaera jakinen bat dela-eta aztertzeke ea bete diren Batzarrak erabaki baten eraginkortasunari jarritako baldintzak.

2. ATALA.Batzar Nagusiaren antolamendu eta funtzionamendua

13. artikulua.Batzar Nagusiaren bilkurak.

1.Batzar nagusiak ohikoak edo ohiz kanpokoak izan daitezke.

2.Batzar nagusi ohikoa nahitaez elkartuko da berezko urtearen lehenengo seihilekoan baltzuaren gestioa zentsuratzeke, urteko kontuak onartzeko eta emaitza nola erabili erabakitzeke, gai zerrendan jasotako beste ezein gai aztertu eta horren gainean ebazteke ahalmena ere duela.

3.Aurreko pasartean xedaturikoaz bestelako batzarrak batzar nagusi ohiz kanpokoak izango dira.

14. artikulua.Batzar Nagusia deitzeko eskumena.

Batzar nagusiak baltzuko Administrazio organoak deitu beharko ditu.

15. artikulua.Nola iragarri deialdia.

1.Batzar nagusia deitu beharko da Merkataritza Erregistroko Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien saltzen den egunkarietako batean iragarkia jarrita bilkurarako erabakitako eguna baino hamabost egun lehenago behintzat, legeak lehenago deitzea xedatutakoetan izan ezik. Aukeran, fede emandako dei bana bidal dakieke Akzioen Erregistro Liburuan jasotako akziodun guztiei.

2.Iragarkiak adierazi beharko ditu lehenengo deialdiko bilkura data eta aztertu beharreko gai guztiak. Gainera, beharrezkoa izanez gero, adieraz dezake noiz bilduko den Batzarra bigarren deialdian. Lehenengo eta bigarren bilkuren artean, gutxienez, hogeita lau orduko tartea utzi beharko da.

3.Ohiz kanpoko batzarra izatekotan eta legeak xedatutako bestelako baldintzetan, iragarkiak edo jakinarazpenak gainera adierazi beharko dute ze dokumentu edo gauza azter daitekeen baltzuaren

egoitzan eta berehala eta doan lor daitezkeela batzarrean onartu beharreko dokumentuak eta, beharrezkoa izanez gero, legeek xedatutako txostenak ere.

4. Deialdi iragarkia izenpetu beharko du Administrazio Kontseiluaren erabakiak egiaztatzeko ahalmena duen lagunak.

16. artikulua. Batzar Unibertsala.

1. Batzarra edozein gai aztertzeko behar bezala eratutzat joko da aurretiko deialdirik gabe baltzu kapital osoa ordezkatuta egotekotan eta partaideek aho batez bilkura egitea eta gai zerrenda onartuz gero.

2. Batzar Unibertsala elkartu daiteke nazioaren lurraldeko edozein tokitan.

17. artikulua. Nola eratu Batzar Nagusia.

1. Batzar Nagusia –ohikoa zein ohiz kanpokoa– legez eratuta geratuko da lehenengo zein bigarren deialdian legeak edo honako estatutu hauek –egoeraren arabera– xedatutako baltzu kapitala bertan edo ordezkatuta dagoela.

2. Aurreko puntua gorabehera, honako erabaki hauek bozkatu behar izatekotan:

—Administrazio Kontseiluko kide kopurua aldatzea.

—Emaizak banatzea.

—Kapitala gehitzea eta akzio bihur daitezkeen edo horrekin truka daitezkeen tituluak jaulkitzea.

—Baltzu Estatutuetako 8., 17., 25., 27., 34. eta 36. artikulua aldatzea.

Soilik joko da behar bezala eratutako batzartzat lehenengo deialdian baltzu kapitalaren %85 bertan edo ordezkatuta egonez gero edo bigarrenean baltzu kapitalaren %82 bertan edo ordezkatuta egotekotan.

3. Batzar nagusia eratu ondoren lagunen batek alde eginez gero, horrek ez du eraginik izango Batzarraren jardueran.

4. Batzarra, are unibertsala bada ere, legez eratzeko, ez da zertan egongo baltzuaren administratzaileak agertzerik.

18. artikulua. Bilkuretan parte hartu ahal izatea.

1. Parte hartzeko eskubidea erabiltzeko, akzioduna aurretik legez ahalmentuta egon beharko du bertaratze txartel nominatibo bidez, txartelak aipatu beharko duela zenbat akzio dauzkan eta horien mota, baita zenbat boto eman ditzakeen ere.

2. Txartelak Administrazio organoak emango ditu akzio nominatiboan Erregistro Liburuan akzioak inskribatuta dituzten akziodunen alde batzar nagusia egin baino bost egun lehenago.

3. Bertaratze txartela baltzu egoitzan egongo da akziodunen eskura batzar nagusia egiteko xedatutako egunaren aurretik.

19. artikulua. Batzar Nagusirako ordezkariak.

1. Parte hartzeko eskubidea duen ezein akziodunek besteren bat izenda dezake ordezkari batzar nagusirako. Ordezkariak idatziz adierazi beharko da, eta ahalmena batzar bakoitzerako beren-beregi emanda.

2.Ordezkaritza ahalmentzeko dokumentuak batzar nagusiaren aktari erantsi beharko zaizkio, ordezkaritza eskritura publiko bidez emanda egon ezean, horrela izatekotan partaideen zerrendan adierazi beharko dela eskritura noiz, zein notariok eta zein protokolo zenbakiz eman den.

3.Aurreko ataletan xedatutakoa ez da aplikatuko ordezkariek dokumentu publiko bitartezko ahalmen orokorra edukiz gero izendaturik duen ondare osoa nazio lurraldean administratzeko.

Egoera dokumentu publikoa erakutsita egiaztatuko da. Partaideen zerrendan adierazi beharko da dokumentu publikoa noiz, zein notariok baimenduta eta zein protokolo zenbakiz eman den.

20. artikulua.Noiz eta nola elkartu Batzarra. Bilkurak luzatzea.

1.Batzar nagusia elkartuko da baltzuaren egoitza dagoen herrian. Deialdian adieraziko ez balitz non elkartuko den, batzarra baltzuaren egoitzan izango dela jo beharko da.

2.Batzar nagusiak erabaki dezake bilkura hurrengo egunetara ere luzatzea, administratzaileek eurek edo batzarrean parte hartzen duen baltzu kapitalaren laurdena ordezkatzen duten kideek proposatuta. Batzarra zenbat egunetan izaten den gorabehera, bakartzat joko da, eta saio guztien akta bakarria egingo da.

21. artikulua.Batzar Nagusiaren mahaia.

1.Administrazio Kontseiluko lehendakaria izango da buru batzar nagusian, edo bera etorri ezean, kontseilu horretako lehendakariordea.

2.Lehendakaria edo lehendakariordea berak bertaratu ezean, Batzarreko burua partaideek aukeratuko dute.

3.Batzar nagusiko buruak idazkaria izango du laguntzaile. Batzar nagusiko idazkari izango da Administrazio Kontseiluko idazkaria, eta bera agertu ezean, lehendakariak izendatuko du idazkaria.

4.Notarioa bertan egoteko eskatu izan balitz, horri ere batzar nagusiaren mahaiko kide izango da.

22. artikulua.Partaideen zerrenda.

1.Gai zerrenda aztertzen hasi aurretik, batzar nagusiko idazkariak partaideen zerrenda osatuko du, bertaratutako akziodunen izen-deiturak ez ezik, ordezkarria aurkezten dituztenak eta ordezkaritzak zein bakoitzaren akzio kopurua ere aipatuko dituela.

2.Zerrenda amaieran zehaztuko da zenbat akziodun etorri diren, berez edo ordezkarri bidez, baita zenbat baltzu kapitalen jabe diren ere, berariaz aipatuko dela boto eskubidedun akziodunena.

3.Batzar nagusiko lehendakariak bi laguntzaile edo gehiago izenda diezazkioke idazkariari bertaratutako zerrenda taxutzeko. Laguntzaileak lehendakariak izendatuko ditu.

4.Bertaraturikoen zerrenda batzar nagusiaren aktaren hasieran agertu ezean, aktari erantsiko zaio idazkariak sinaturik eta lehendakariak ontzat emanda.

23. artikulua.Batzar Nagusiak nola erabaki.

1.Bertaratutako zerrenda eginda, lehendakariak adieraziko du batzar nagusia legez eratuta dagoela eta, horretarako biderik izanez gero, gai zerrendako gai guztiak aztertzen has daitekeela edo, bestela, batzar nagusiak zeintzuk azter eta ebatz ditzakeen.

2.Lehendakariak aztergai jarriko ditu gai zerrendako gaiak zerrendako hurrenkera berean.

3.Bertaratzeko eskubidea duen edonork parte har dezake eztabaidan behin, gutxienez, zerrendako gai

bakoitzean, nahiz eta batzar nagusiko lehendakariak partehartzeen hurrenkera erabaki dezakeen eta noiznahi mugatu horien gehienezko iraupena.

4. Lehendakariak gai bat behar beste eztabaidatu dela iritziz gero, bozketa gai jartzen dut.

24. artikulua. Nola erabaki.

1. Zerrendako gai bakoitza banaka bozkatuko da, eta bozketa nominala eta publikoa izango da.

2. Batzarreko lehendakariak agintzea du bozketa nola egin, hartarako begirale edo laguntzaile bi edo gehiago izenda ditzakeela.

3. Halere, batzarreko lehendakariak erabakitzea du gai zerrendako hainbat punturen gaineko proposamenak batera bozkatzea, horrela jokatzekotan bozketaren emaitza proposamen bakoitzari izendatuko zaiola partaideren batek haietariko baten gaineko botoa aldatzeko nahia agertu ezik. Bestela, aktan jasoko dira partehartzaile bakoitzak adierazitako boto aldatetak eta horien ondorioz, proposamen bakoitzean izandako bozketaren emaitza.

25. artikulua. Erabakitzea.

1. Erabakiak hartuko dira batzar nagusia eratzerakoan bertara diren boto eskubidedun akziodunen botoen gehiengoz.

2. Nolanahi ere den, baltzu kapitalaren %80ko gehiengoa beharko da ondokoak erabakitzeko:

—Kontseilari kopurua aldatzea.

—Etekinak banatzea.

—Kapitala gehitzea eta akzio bihur daitezkeen edo horrekin truka daitezkeen tituluak jaulkitzea.

—Baltzu Estatutuetakako 8., 17., 25., 27., 34. eta 36. artikulua aldatzea.

3. Gai bat bozkatu ondoren, lehendakariak emaitza aldarrikatuko du eta, hala badagokio, erabakia legez hartutakotzat joko.

4. Bozkatzeko eskubidea izanik, erabaki baten aurka bozkatzen duen akziodunak eta bozkatzeko eskubiderik ez duen akziodunak eskubidea dute eskatzeko batzar nagusiaren aktan jasota gera dadila hartutako erabakiaren aurka daudela.

26. artikulua. Udalbatzarra - Batzar Nagusia.

1. Baltzu kapital osoaren jabea Donostiako Udala den bitartean, prozedurari, deialdiei eta erabakiak hartzeari dagokienez bete beharko dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki erakundeen antolamendu, funtzionamendu eta erregimen juridikoaren Araudia, Udal Organoen Araudia, eta horiek garatzeko emandako ebazpenak.

Gainerako gaietako dagokienez, akziokako baltzuen araubideko arauak bete beharko dira.

2. Batzar nagusiko burua Donostiako Udaleko alkatea izango da.

3. Batzar nagusiko idazkaria Donostiako Udaleko idazkaria izango da.

2. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO ORGANOA

1. ATALA.Xedapen orokorrak

27. artikulua.Administrazio organoaren egitura.

Administrazio Kontseiluak administratuko eta gobernatuko du baltzua, eta aipatu organo hori izango da baltzuaren ordezkaria, baita ahalmen guztien jabe ere.

Batza Nagusiak izendatutako 9 kidek osatuko administrazio kontseilua. Akziodun batzuek akzioak borondatez elkartzen badituzte eta kopuruak berdintzen edo gainditzen badu baltzu kapitala kontseilu kideen kopuruaz zatitzearen emaitza zatiki osoak gaindituta, eskubidea izango dute batezbesteko horien arabera dagozkien kideak izendatzeko. Ahalmen hori erabiliz gero, horrela elkartutako akzioek ezingo dute parte hartu kontseiluko gainerako kideak hautatzeko bozketan.

28. artikulua.Baldintza subjektiboak.

Administrazio Kontseiluko kide izateko ez dago zertan akziodun izanik.

29. artikulua.Karguak noiz arte iraungo.

Administrazio Kontseiluko kideek lau urtean jardungo dute karguan eta behin edo gehiagotan aukera ditzakete kargu bererako.

30. artikulua.Administrazio Kontseiluko kideen saria.

Administratzaile karguagatik ez da lansaririk jasoko.

Administrari kargua uko egiteko, kentzeko eta behin eta berriro aukeratzeko modukoa da.

Donostiako Udala ordezkatzan duten kontseilariak toki araubidearen indarreko legeek xedatutakoen menpean egongo dira izendatzea, kargua irautea, gaitasunik eza eta bateraezintasunak, erantzukizuna eta, oro har, jardutea diren bezainbatean, ondorioz, udalbatzak noiznahi kargutik ken ditzakeela hala egitea bidezkoa denetan.

2. ATALA.Administrazio Kontseilua

31. artikulua.Administrazio Kontseiluko karguak.

1.Administrazio Kontseiluak lehendakaria izendatuko du eta, aukeran, lehendakariordea. Salbuespen gisa, baltzu kapitala osorik Donostiako Udalarena den bitartean, lehendakaria izango da Donostiako Udaleko alkatea.

2.Administrazio Kontseiluak idazkari bat izenda dezake, eta izendapena administratzaile ez direnei ere esleiri dakieke, nahiz eta horrela izatekotan hizpidea izango duten, baina botorik ez. Salbuespen gisa, baltzu kapitala osorik Donostiako Udalarena den bitartean, Kontseiluko idazkaria izango da Donostiako Udaleko idazkari nagusia.

3.Administrazio Kontseiluak zuzendari-gerentea izendatuko du, eta akzioduna edo kontseilu kidea izan daiteke ala ez.

32. artikulua.Administrazio Kontseilua deitzea.

1.Lehendakariak deituko du Administrazio Kontseilua edo, bera hil, kanpoan egon, gaitasunik galdu edo ezintasunik izanez gero, lehendakariordeak, beharrezko edo egoki deritzoten bakoitzean. Deia egin beharra egongo da gutxienez Administrazio Kontseiluko hiru kidek eskatuz gero. Hamabost egun igaroz

gero lehendakariak eskaera jaso arren, kontseilu deirik egin gabe, lehendakariordeak deitu beharko du.

2.Deia gutun, telegrama edo telekopia bidez bidaliko zaio baltzuren artxiboetan jasotako kontseiluko kide bakoitzari, bilkura egiteko adierazitako eguna baino berrogeita zortzi ordu lehenago gutxienez.

3.Administrazio Kontseilua legez eratzat joko da deialdirik gabe ere kide edo horien ordezkari guztiek, elkartuta, saioa egitea aho batez onartuz gero.

33. artikulua.Non elkartu Kontseilua.

Administrazio Kontseiluak saioak egingo ditu baltzuren egoitzan, deialdian bestelako tokirik adierazi ezean.

34. artikulua.Administrazio Kontseilua eratzea.

1.Administrazio Kontseilua legez eraturik geratuko da ezerein gai aztertu eta erabakitzeko bilkuran berez edo ordezkari bidez egonez gero batzar nagusiak xedatutako kide kopuruaren erdia gehi bat, nahiz eta kopuru hori osorik egon ez edo eratu ondoren, baten batek irten.

2.Salbuespenez, 36. artikuluko 4. atalak aipaturiko ezerein gai aztertu eta erabakitzeko, gutxienez zazpi kontseilarik agertu beharko dute Administrazio Kontseilua legez eraturik gera dadin.

3.Administrazio Kontseiluko kideek beste kideren bat baino ezin dute izendatu ordezkari.

4.Ordezkaritza edozein euskarri idatziz eta saio bakoitzerako eman beharko da.

35. artikulua.Administrazio Kontseilurako gai zerrenda.

Administrazio Kontseiluak bere eskumeneko gaiak aztertu eta erabaki ditzake deialdiko gai zerrendan agertzekotan.

36. artikulua.Administrazio Kontseiluak nola aztertu gaiak eta erabaki.

1.Lehendakariak aztergai jarriko ditu gai zerrendako gaiak. Edozein kontseilu kidek eskubidea du deialdia bidali aurretik lehendakariari eskatzeko kontseiluaren eskumeneko gaiekin erlasionaturiko edozein gai sartzeko deitu gabeko hurrengo bilkurako zerrendan.

2.Lehendakariak gairen bat behar beste eztabaidatu dela iritziz gero, bozketan jarriko du, bertaraturiko edo ordezkaturiko kontseilu kide bakoitzak boto bana izango duela.

3.Erabakiak hartuko dira berez edo ordezkari bidez bertaraturiko kontseilu kideen gehiengo absolutuz. Berdinketarik gertatuz gero, lehendakariaren botoak erabakiko du.

4.Nolanahi ere den, Administrazio Kontseiluko kideen aldeko 7 botoen aldea egongo da honako hauek erabaki behar izanez gero:

—Tarifak eta prezioak ezartzea.

—Etekinak banatzeko proposamena.

—Zuzendari-gerentea izendatzea eta horren zereginak betetzeko behar diren ahalmenak ematea.

—Kapitala gehitzeko eta akzio bihur daitezkeen edo horrekin truka daitezkeen tituluak jaulkitzeko proposamena.

—Baltzu Estatutueta 8., 17., 25., 27., 34. eta 36. artikulua aldatzeko proposamena.

31. artikulua. Administrazio Kontseiluko aktak.

1. Administrazio Kontseiluaren bilkura aktak kontseiluko idazkariak prestatuko ditu. Idazkaria egon ezean, bertarutakoetatik hartarako izendatzen den lagunak prestatuko du Akta.

2. Akta kontseiluak berak onartuko du bilkuraren amaieran do hurrengoaren hasieran.

38. artikulua. Ahalmenak besteren esku uztea.

1. Administrazio Kontseiluak kontseilariak osatutako Batzorde Iraunkor bat eratu lezake edo kontseilari ordezkari bat izendatu.

2. Ahalmenak behin betiko ordezkatzeko edo karguak kontseilu kidek hartu behar dituen erabakitzeke, baita Batzorde Iraunkorraren funtzionamendua arautzeko ere, kontseiluko 7 kideren aldeko botoa beharko da, nahiz eta kopuru hori osorik egon ez edo eratu ondoren, baten batek irten. Kontseilari ordezkariak edo Batzorde Iraunkorrek Administrazio Kontseiluak bereetatik eskuordetzen dizkieten ahalmenak izango dituzte, nahiz eta segituan zerrendatuko diren salbuespenak indarrean egon:

1. Legearen aginduz edo nahitaez bete beharreko beste ezein arauben arabera Administrazio Kontseiluak berak inoren esku utzi gabe bete beharrekoak.

2. Akziodunen Batzar Nagusiari –ohikoari zein ohiz kanpokoari– zein proposamen aurkeztu behar zaion onartzea.

3. Administrazio Kontseiluak berariaz berarentzat gordetzen dituenak.

4. Diruz neurtzeko modukoak izanik, ehun hoge mila eta berrehun eta bi euro koma berrogeita bi zentimo gainditzen dituztenak (120.202,42 €).

Batzorde Iraunkorrean bildutako edo ordezkaturako kide guztiek ezin erabaki balezakete gairen bat kontrako aukerak berdinduta daudelako, gaia Administrazio Kontseilura bidali beharko da.

3. Ahalmentzea gorabehera, Administrazio Kontseiluak berarentzat gordeko ditu eskuordeturiko ahalmenak.

3. ATALA. Zuzendari-gerentea

39. artikulua. Zuzendari-gerentearen ahalmenak.

1. Zuzendari-gerente karguan egongo da Administrazio Kontseiluak lege aplikagarrien arabera xedaturiko epean, Administrazio Kontseiluak berak kargua eman edo ken diezaiokeela.

2. Ahalmentzat izango ditu Batzar Nagusiaren eta Administrazio Kontseiluaren erabakiak zein, hala erabakiz gero, Batzorde Iraunkorraren eta kontseilari ordezkariaren ere gauzatzeko behar direnak, baita aipatu organoek ahalmen bidez agintzen dizkietenak ere.

3. Zuzendari-gerenteak aurreko ahalmenen ondoriozko zereginak beteko ditu eta, batez ere, ondoko hauek:

a) Baltzuaren negozioak zuzendu, administratu eta gestionatzea, ustiaketaren bilakabidea kontrolatu eta gainbegiraturako duela, beste inoren aurrean baltzuaren ordezkaria izateaz gain, ardurapeko dituen gai

guztiak bere kabuz ebatziko dituela.

b)Egin beharreko lana zuzendu eta antolatuko du, lanpostu bakoitzaren baldintza eta eskakizunak xedatuta, baita langileak izendatu eta baltzuaren lantokietan lekuz aldatu ere.

c)Langileak izendatu eta goragoko lanpostuetara esleitzea zein lansariak, sariak, zigorrak eta kaleratzeak erabakiko ditu lege eta araudien arabera.

d)Zerbitzu eta egoitzen goi mailako zuzendaritza eta ikuskatzaitza gauzatzea.

e)Laneko metodoak hobetzeaz eta teknologi hobekuntzak erakartzeaz arduratuko da, baita lantokiak, instalazioak eta bestelako ekipamenduak zaintzeaz eta mantentzeaz, baita gastuak zentzuz egiteaz.

f)Baltzuaren ohiko jardueraren zuzentzearekin zerikusia duten beste edozein ahalmenak.

4. ATALA.Administrazio Kontseiluaren ahalmenak

40. artikulua.Administrazio ahalmenak.

1.Administrazio Kontseiluak ahalmena du baltzuaren gestioarekin zerikusia duten gai guztietan.

2.Epaian eta epaiz kanpo ordezkatzeko ahalmena Kontseiluari dagokio, eta horren kideek modu kolegiatuan jokatu dute. Salbuespenez, eta baltzu kapitala osorik Donostiako Udalarena den bitartean, epaian eta epaiz kanpo ordezkatzeko ahalmena Administrazio Kontseiluko lehendakariak izango du.

5. ATALA.Baltzuaren erabakiak tresna publiko bihurtzea

41. artikulua.Tresna publiko bihurtzeko ahalmena duten lagunak.

1.Baltzuko organoen erabakiak tresna publiko bihurtzea Administrazio Kontseiluko idazkariari dagokio.

2.Baltzuaren erabakiak tresna publiko bihurtzeko eskudun organoak erabakia hartutako bilkuran bertan hartarako ahalmendutako Administrazio Kontseiluko kideek, edo, horien partez, lehendakariak edo lehendakariordeak.

IV. TITULUA.

URTEKO KONTUAK

42. artikulua.Baltzu ekitaldia.

Baltzu ekitaldia bat etorriko da berezko urtearekin. Salbuespenez, lehenengo baltzu ekitaldia hasiko da eratze eskritura ematen den egunean eta berezko urtearen azken egunean amaituko da.

43. artikulua.Urteko kontuak prestatzea.

1.Legezko epearen barnean administratzaileek urteko kontuak eta emaitza erabiltzeko proposamena aurkeztuko dituzte eta, halakorik behar izanez gero, gestio txostena ere.

2.Urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuak, legeek hartarako biderik ematekotan, modu laburtuan aurkeztuko dira.

44. artikulua.Urteko kontuak ikuskatzea.

1.Urteko kontuak eta gestio txostena kontu auditoreek ikuskatu beharko dituzte legeak xedatutako terminoetan.

2.Nolanahi ere den Donostiako Udalak ahalmena du, zenbat baltzu kapitala duen gorabehera, baltzuaren kontabilitatea eta instalazioak aztertu, fiskalizatu eta ikuskatzeko, gobernu organoetako kideek aipatu ahalmen hori gauzatzen lagundu beharko diotela.

45. artikulua.Urteko kontuak onartzea eta gordailuan uztea.

1.Urteko kontuak akziodunen batzar nagusi ahikoak onartu beharko ditu.

2.Urteko kontuak onartutakoan, batzar nagusiak erabakiko du nola erabili ekitaldiko emaitza.

3.Urteko kontuak onartu eta hilabetera, baltzuaren egoitzari dagokion merkataritza erregistroan aurkeztu beharko dituzte administratzaileek urteko kontuak eta emaitza nola erabili erabaki zituen batzar nagusiaren erabakien egiaztagiria, erantsita eramango duela urteko kontuen ale bat eta, halakorik balego, gestio txostena eta auditoreen txostena ere, baltzuak auditoria nahitaez edo akziodun gutxiengo batek eskatuta egin beharra izatekotan. Egiaztagiria notarioak ontzat emandako izenpeekin aurkeztuko da.

V. TITULUA

BALTZUA EZEREZTEA ETA LIKIDATZEA

46. artikulua.Baltzua ezerezte.

Baltzua ezereztuko da Toki Araubidearen Legeak eta horien araudiek zein akziokako baltzuen araubide juridikoaren Legeak xedaturikoaren arabera eta Akziodunen Batzar Nagusiak hala erabakita.

47. artikulua.Likidatzaileak.

Baltzua ezereztua, indarreko izendapena Merkataritza Erregistroan behar bezala erroldaturik duten administratzaileak besterik gabe likidatzaile bihurtuko dira. Administratzaileek kopurua bikoitia izanez gero, azken izendaturikoa ez da likidatzaile bihurtuko.

48. artikulua.Ezerezturiko baltzua ordezkatzeko ahalmena.

Baltzua ezereztekotan, likidatzaile guztiek batera eta modu solidarioan izango dute ordezkatzeko ahalmena, administratzaile bakoitzari esleituriko ordezkatzeko ahalmenaren araubidea gorabehera.

Xedapen Gehigarria.

Zorroaga Hileta Zerbitzuak enpresatik Donostia Hileta Zerbitzuak AB enpresara iragaten diren langileei irabazitako eskubideak errespetatuko zaizkie eta aurrerantzean EFAPEBAEren araberako komenioa aplikatuko zaie, baltzu berriak izango dituen funtzionamendu berezitasunak kontuan izanda, horiek denak baltzu berriko zuzendaritzak eta langileen ordezkariak negoziaturiko eranskin batera bilduko direla.

Udalak Donostia Hileta Zerbi-tzuak AB sozietatearen jabe-tza guztiz edo aldezkualda-tze-kotan, Udalak berak bermatuko du enpresa berriak bere gain hartuko dituela Donostia Hileta Zerbi-tzuak AB sozietateak bere langileekiko dituen eskubide eta betebeharrak guztiak.

HILETA, TANATORIO ETA GORPU ERRAUSKAILUKO ZERBITZUAK EMATEAREN PREZIO PUBLIKOAK

<i>Zerbitzuak</i>	<i>Oinarritzak</i>	<i>Miserikordiak</i>
-------------------	--------------------	----------------------

	€(+ BEZ)	€(+ BEZ)
Biribila hilkutxa	456,19	
Miserikordia hilkutxa		132,97
Hileta autoa	73,05	73,05
Zerbitzua egitea	24,35	24,35
Sudario	20,50	20,50
Coltrino izara	8,32	8,32
Tramitazio eta agentziatu gastuak	224,24	224,24
Prestaketa	76,88	
Mediku ziurtagiria	4,00	4,00
Eskelak, koroak, tanatorioa, erraustea, errauts ontziak...	Merkatuko prezioak	

PRECIOS PUBLICOS POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS FUNERARIOS, DE TANATORIO Y DE CREMATORIO.

<i>Servicios</i>	<i>Básico</i> €(+ I.V.A.)	<i>Caridad</i> €(+ I.V.A.)
Féretro Redonda	456,19	
Féretro Caridad		132,97
Coche fúnebre	73,05	73,05
Entrega servicio	24,35	24,35
Sudario	20,50	20,50
Sábana Coltrino	8,32	8,32
Gastos de tramitación y agenciado	224,24	224,24

Preparación	76,88	
Certificado médico	4,00	4,00
Esquelas, Coronas, Tanatorio, Incineración, Urnas...	Conforme a precios de mercado	

Donostia, 2004ko abuztuaren 11.—Oscar Villasante Arbelaiz, Finantza Zuzendaria. (7768)